



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko otsailaren 24a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (5. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko esparru-hitzarmena, kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jarduerak egiteko. Osoko Bilkurak emandako baimena (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu herritar ijitoek pairatu behar dituzten arrazakeria eta bazterkeria modu guztiak eta arbuiatzen ditu Italian pertsonen duintasunaren aurka hartutako neurriak. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Queiles ibaia leheneratzeko plan integral bat aurkez dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez sustatzen da oroimen historikoari buruzko dokumentu-funtsa sortzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko hitzarmen baten bidez. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukiari jarraikiz. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoen ondarearen gaineko zerga mantentzean, superabitak gastu eta inbertsio sozialari aplikatu diezazkion, Iberdrolan duen partaidetza sal dezan eta lehentasunik ez duten azpiegiturretan inbertsiorik egin ez dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen batzarrean dagozkion bi ordezkariak izenda ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko. Mozioa erretiratzea (13. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko zer dela-eta atzeratu den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen nomina, María Chivite Navascués andreak egina (14. or.).
- Galdera, prezio mugatuko etxebizitza libre bat erosten dutenentzat PFEZean kenkari fiskala ezartzeari buruzkoa. Ion Erro Armendáriz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Baztango eta Zangozako osasun eremuko profesionalen eta herritarren eskariei eta eremu horretako gaueko guardiak murrizteari buruzkoa. Asun Fernández de Garaialde y Lazano andreak egina (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko otsailaren 12an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Gizarteratze-tresna nagusietako bat bihurtu da enplegua. Soldatapeko jarduera ekonomikoa da gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren osagai eraginkorrenetako bat.

Gaur egun, ordea, langabezia-tasa txikia den arren, badira enplegarritasun txiki edo oso txiki eta batere enplegarritasunik ez duten pertsonak, badira beste batzuk enplegu-prekarietatean daudenak, lan merkatuan etengabe sartu eta irtean, eta badira orobat, lana izanagatik, soldata oso txikiak jasotzen dituztenak, arauz kanpo edo ezkurtuko ekonomian lan egiten dutenak; horiek denak gizarte bazterkerian edo gizarte bazterkeria pairatzeko arriskuan daude.

Enplegu-tresnak, oro har, gaitasun gehien dituzten pertsoneri eta enplegua lortzeko aukera gehien dituztenei zuzentzen zaizkie, eta gizarte zerbitzuak, berriz, talderik ahulenez arduratzen dira. Baliabide gutxi dituzte lanean hasi ahal izateko, baina ekintza-multzo bat hedatzen dute horretarako: informazio eta orientazio zerbitzuak, laneako eta lan-aurreko prestakuntza, auto-enplegurako aholkularitza, gizarte-enplegu babestuko programak eta abar. Gizarteratzeko eta laneratzeko pro-

zesua osatzeko neurriak behar dituzte ekintza horiek.

Izan ere, ekintza horietako gehienek “abiapuntuan” esku hartuta lortzen dute enplegua, hau da, oztopoak kenduz, trebetasunak eta gaitasunak hobetuz eta abar. Hori dena garrantzitsua da, baina oinarritzko alderdi bat falta da oraindik ere: “helmuga” edo enplegu zehatz bat lortzea.

Honela definitzen dira “gizarte-klausulak”: kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-politikaren elementuak txertatzea, eta zehazki enplegua sustatzea gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzat, pertsona horiei lan munduan sartzen laguntzearen. Logikoa denez, klausula horiek ezin dira tresna isolatu bat izan, beste jarduketa batzuen osagarri izan behar baitute. Horien balioa datza, hain zuzen ere, laneratzeko ibilbidea osatzeko izan ohi den zailtasuna enplegua lortzearen bidez gainditzeko beharreen. Halatan, “gizarte-klausulen” bitartez, lanpostu kopuru jakin bat erreserbatuko zaie gizartean bazterturik edo baztertzeko arriskuan dauden pertsoneri, lan munduan sartzeko eta enplegua lortzeko sinergiak baliatuta.

Foru lege honi esker, gizarte-ezaugarriak gehitu ahalko zaizkie kontratuak esleitzeko irizpideei, 51. artikuluko 2. idatz-zatian zehazten den modu berrian.

Artikulu bakarra.

Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 51. artikulua honela geldituko da idatzirik:

51. artikulua. Kontratuak esleitzeko irizpideak.

1. Kontratuak esleitzeko oinarritzko irizpideak honako hauek izanen dira:

a) eskainitako prezioa soilik.

b) gainerako kasuetan, eskaintza onuragarriena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari lotutako irizpideak erabiliko dira, hala nola kalitatea edo kalitatearen kontrolerako mekanismoak, prezioa, eskaintzaren balio teknikoa, ordezeko produktuen eskuragarritasuna, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, ingurumenari dagozkion ezaugarriak, funtzionamendu kostua, errentagarritasuna, salmenta ondoko zerbitzua eta laguntza teknikoa, emate data eta ematearen edo exekuzioaren epea, eta antzeko beste batzuk.

2. Kontratua eragin duen interes publikoa zein den, kontratazio organoek hartarako irizpide egokienak erabiliko dituzte. Honela:

a) Eskaintako prezioa elementu erabakigarri bakarra bada, hura soilik erabiliko da esleipenerako irizpide gisa. Betiere emakida kontratuak eskaintza onuragarrienari esleituko zaizkio.

b) 49. artikuluan jasotzen diren betekizunekin bat, eta administrazio klausula partikularren orrietan aldeztatik definituta, aurkeztu den eskaintzaren gizarte-ezaugarri buruzko irizpideak jaso ahalko dira.

c) Administrazio klausulen orrietan aldeztatik definituta, eta kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradun gisa azaltzen diren populazio-maila bereziki kaltetuen beharrezan asetzea helburu, beharrezan horiei erantzuten dieten irizpideak jasoko dira, hala nola zuzentzen zaizkien ezgaitasuna duten pertsonen, lan merkatuan kaltetutakoei eta enplegu-kolokatasunean daudenei edota zuzenduta daudenak gizon eta

emakumeen arteko berdintasuna bultzatzera, Lanaren Nazioarteko Erakundearen hitzarmenak betearaztera edo pertsona ororentzako irisgarritasun eta diseinu unibertsaleko irizpideak ziurtatzera.

3. Administrazio klausula partikularren orrietan ezarritako esleipen irizpideak aplikatuta bi lizitzailek edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean, berdinketa hausteko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: langile ezinduen ehunekorik handiena duen enpresa, enpresako langileen 100eko 3k, gutxienez, ezgaitasunen bat baldin badu; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, enpresaren plantillan behin-behineko langileak 100eko 10 baino gehiago ez badira; eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, genero arloko praktika onak egiten dituela frogatzen duen enpresa.

Horretarako, kontratazio mahaiak edo kontratua kudeatzen duen unitateak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost eguneko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da.

Xedapen gehigarri bakarra.

Foru lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean garatuko da erregelamendu bidez, zeinak zehaztuko baitu foru lege honetan zerrendatzen diren gizarte-klausulak baloratzeko modurik objektiboena eta hoberena.

Foru Lege proposamena, Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko otsailaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako Emakumeari Laguntzeko Zentro Integralak Garatzeko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko abenduaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitze-ari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2009ko otsailaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako Bide Publikoak Bizikletek Erabiltzeko Egokitze-ari buruzko Foru Lege proposamena.

Proposamen hori 2008ko abenduaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

D saila:
HITZARMENAK

**Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko
esparru-hitzarmena, kultura, prestakuntza eta gizarte arloko jardue-
rak egiteko.**

OSOKO BILKURAK EMANDAKO BAIMENA

Nafarroako Parlamentuak, 2009ko otsailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Foru Diputazioari ondoko hitzarmena izenpetzeko eskatutako baimena ematea erabaki zuen: "Defentsa Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko esparru-hitzarmena, kultura, prestakuntza eta

gizarte arloko jarduerak egiteko". Haren testua 2009ko otsailaren 4ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan musikak duen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, zeinaren ondorioz prestakuntzari, interpretazioari, zabalkundeari eta sorkuntzari buruzko plan bat egingen baita

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan-txosten zabal bat egin dezan Nafarroako musika arloko politikaren garapenarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Txosten horretan honako alderdi hauek landuko dira bederen:

a) Gure ikasketa musikalen sistemaren errealtatea eta gabeziak ezagutzen, musika eskoletatik hasita kontserbatorio profesionalera eta goi mailakora arte, baita musika eskola pribatuena ere. Halaber, ezagutu behar dira ikasketa hauekin lortu

nahi diren helburuak eta maila bakoitzari dagozkion eginkizunak.

b) Ezagutzea Nafarroako ikasleen espezializazio- edota ikasketak zabaltzeko beharrianak eta horiek ase ahal izateko moduak.

e) Zentro horietako ikasleek musikaren arloan duten lanbideratzeari buruzko datuak ezagutzea, baita lanbideratzeko eskaintzen zaizkien aukerak eta laguntza eta pizgarriak emateko dauden aukerak ere.

d) Nafarroako musika-talde profesional edo erdi-profesionalen egoera ezagutzea, baita horien planteamendu profesional eta artistikoak, musikaren arloan betetzen duten eginkizuna eta dituzten aukerak ere.

e) Musikaren arloko praktika amateurraren jarduerak ezagutzea, baita bere garrantzia erreala ere, gozatze pertsonalari, publiko berriak sortzeari eta jarduera ekonomikoa sortzeari dagokionez.

f) Nafarroan musika zabaltzeko egin diren jarduerak ezagutzea eta zenbatestea, baita publikoek batez ere ekonomia- edo lurraldetasun-arrazoiengatik zailtasun handiagoak dituztenek, espero dutena eta publiko horiek musika-jardueretarako duten irismen erreala ere.

g) Nafarroako musikak eta musikariek nazioan eta nazioartean duten zabalkundea, baita lanera-ko izaten dituzten mugak eta aukerak ere.

h) Musika ondare historikoaren eta garaikidearen egoera ezagutzea eta hura berreskuratze-ko, aztartzeko, argitaratzeko, grabatzeko, jotzeko eta zabaltzeko beharra baloratzea.

i) Musika sorkuntza garaikidearen egoera ezagutzea, bai musika akademikoei bai gaur egungo bestelako musikei dagokienez.

j) Nafarroako musika arloko industriaren errealitatea ezagutzea, baita bere zenbatespena eta azpisektore honen eragina edo garrantzi ekonomikoa ere.

k) Musikara bideratzen diren baliabideak ezagutu eta zenbatestea, bai administrazio publikoetatik datozenak –Nafarroako Gobernua, toki entitateak–, bai entitate pribatuetatik datozenak –fundazioak, enpresak eta abar–.

l) Ezagutzea eta aztertzea zer aukera dauden neurri fiskalak ezartzeko eta funts pribatuek ekarpenak egin ditzaten bultzatzeko, Nafarroan musikaren arlorako ezarritako helburu orokorrak betetzen laguntze aldera.

m) Espainiako beste autonomia erkidegoetan eta Europan erreferentzia diren zenbait eskualdeetan musikaren arloan gauzatzen ari diren ekimenak, esperientziak eta politikak ezagutu eta aztertzea, Nafarroako Foru Komunitatean egin beharreko politiken eredu edo orientabide gisa baliagarri izan daitezen.

2) Azterlan-txostenak jaso beharko du, emaitzen arabera, “Nafarroako Foru Komunitatean musikaren arloko politika egiteko gomendioei buruzko txostena”.

Orientabide gisa, hona hemen jaso beharko lituzkeen zenbait gai:

a) Gastuaren optimizazioa:

– Entitateen arteko lankidetzak hobetzeko beharra, erabakiak hartzen dituzten organoen arteko elkarrizketa eta programak egiten dituzten organoen arteko hitzarmenak bultzatzeko, errealak ez diren kosturik ez izateko, programazio mistoak sustatzeko eta programazioen bikoiztasuna saihesteko.

– Dirulaguntza izenduna duten entitateentzat ezartzea pizgarri/penalizazio kontzeptua, dirulaguntzaren erabilera eragingarriaren arabera.

– Kontrolak ezartzea, sektorearen inflazioa eragingen duten nagusitasunak saiheste aldera.

b) Egonkortasuna ematea musikaren arloko entitateei eta jardueri.

– Legegintzaldirako aurrekontu-konpromisoa, musikaren arloko entitate nagusiei bermatuko dizkiena dirulaguntzen bidez jasotzen dituzten dirusarrerak, eta ahalbidetuko diena epe luzeko programak egitea.

c) Deszentralizazio geografikoa:

– Musika-ziklo egonkorak bultzatzea Tuteran, Lizarran eta Zangozan.

– Urteko ziklo bat bultzatzea, “Nafarroako Orkestra Sinfonikoa eta Iruñeko Orfeoia Nafarroan barrena” izena izanen duena eta mundu guztiarentzako moduko programa eta prezioak izango dituen.

– Eskolentzako eta familientzako kontzertuak izeneko emanaldi saila Tuteran sustatzea.

d) Gizarteko maila guztiek musikarako sarbidea izatea.

– Prezio merkeko zikloak sartzeko Baluarteko programazioetan, Nafarroako zenbait entitateekin lankidetzan, esate baterako: Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, Iruñeko Ganbera Abesbatza, Kontserbatorioko Orkestra eta Nafarroako Abesbatzen Elkarteak.

e) Nafarroako musikaren zabalkundea bultzatzea.

– Baluarteko Ganbera-aretoa bilakatzea Nafarroako ahots- eta tresna-taldeak bultzatzeko agertoki.

– Nafarroako musikagileen ondare historikoa eta garaikidea grabatzeko eta argitaratzeko hitzarmenak egitea.

– “Nafarroako Musika Artxibo eta Dokumentazio Zentroa” sortzea, zeina arduratuko den merkaturan aurkitzeko zailak diren musikagile nafarren partiturak berreskuratzeko, argitaratzeko eta esku-ragarri jartzeko.

– Nafarroako Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen Abesbatzen Jaialdia bultzatzea. – Julián Gayarre eta Pablo Sarasate lehiaketei buruzko berrikusketak sakona egitea.

f) Musika enbaxada kultural gisa.

– Nafarroako entitate musikalak kanpora atera daitezela sustatzea.

3) Azterlan-txostenak jaso beharko du gomendio bakoitzaren gaineko ebaluazio ekonomikoa, gomendio horiek gauzatzeak gastu bat dakarrenean.

4) Aipatu azterlan-txostena 2009ko irailaren 30a baino lehen aurkeztuko da Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordeak ezagutu, eztabaida eta, hala badagokio, onetsi dezan, eta 2010eko aurrekontuetan sartzeko aldera plan horretan jasotako ekintzak aurrera eramanez ahal izateko beharrezkoak diren kontusailak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, osasun garraioaren arazoak aztertu eta antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan-mahai bat sor dezan, sektoreak egun duen problematikari eta osasun garraioaren antolamendu eta/edo kudeaketa eredu berriari heltzeko. Lan-mahai hori ondokoek osatuko dute: Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak, Lizarrako, Tuterako eta Iruñeko ospitaleetako larrialdietako Zuzendaritzek, Nafarroako Larrialdietako Agentziak (112) eta Osasun Larrialdietako Teknikarien Elkarteak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturala programari dagokionez

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erregelamendu bidez gara dezan Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legearen 68. artikuluan xedatutakoa, % 1 kulturalari dagokionez.

2.- Nafarroako Parlamentuak bi hilabeteko epea ezartzen du, erabaki hau onartzen denetik aurrera, aipaturiko ekimen hori Legebiltzarrean aurkezteko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu herritar ijitoek pairatu behar dituzten arrazakeria eta bazterkeria modu guztiak eta arbuiatzen ditu Italian pertsonen duintasunaren aurka hartutako neurriak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu herritar ijitoek pairatu behar dituzten arrazakeria eta bazterkeria modu guztiak eta arbuiatzen ditu Italian pertsonen duintasunaren aurka hartutako neurriak."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten ditu herritar ijitoek pairatu behar dituzten arrazakeria eta bazterkeria modu guztiak eta arbuiatzen ditu Italian pertsonen duintasunaren aurka hartutako neurriak

1. Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten ditu herritar ijitoek pairatu behar izaten dituzten arrazakeria eta bereizkeria modu guztiak eta arbuiatzen ditu Italian pertsonen duintasunaren aurka hartutako neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, erabaki hau helaraziz, Italiako Gobernuarekin mantentzen dituen bitariko harreman arruntetan, adieraz diezaion Parlamentu honen kezka, ijito herriaren eskubideen urraketa dela-eta, giza eskubideen aurkakoak diren joera xenofoboekin amaitze aldera.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Queiles ibaia leheneratzeko plan integral bat aurkez dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Queiles ibaia leheneratzeko plan integral bat aurkez dezan". Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko irailaren 19ko 78. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Queiles ibaia leheneratzeko plan integral bat aurkez dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010eko abendua baino lehen plan bat aurkez dezan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta autonomia erkidego interesdunekin lankidetzan prestatutako Barrutiko Plan Hidrologikoaren barruan, zeinetan jasoko baitira

Queiles ibaiaren ekosistema zaintzeko eta hobetzeko aplikatzekoak diren neurriak, bai eta horretarako balia daitezkeen arau izaerazko tresnak eta inplikaturiko administrazioek aplikatu beharreko neurriak ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jaso eta balora ditzan inplikaturiko toki entitateek, eragile sozialek eta ingurumenaren arloko eragileek eginiko proposamenak, kontuan hartuta bereziki Plan Hidrologikoa onesteko bultzatutako prozesuan aurkeztutakoak.

Erabakia. Horren bidez sustatzen da oroimen historikoari buruzko dokumentu-funtsa sortzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko hitzarmen baten bidez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 12an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez sustatzen da oroimen historikoari buruzko dokumentu-funtsa sortzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko hitzarmen baten bidez" Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez sustatzen da oroimen historikoari buruzko dokumentu-funtsa sortzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Parlamentuaren arteko hitzarmen baten bidez

Nafarroako Parlamentuak erabaki du hitzarmen bat prestatu eta sinatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin. Hitzarmenak xede izanen du oroimen historikoari buruzko dokumentu-funtsa sortzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzea Gerra Zibilaren eta frankismoaren garaian Nafarroan bizitako gertakariei buruz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukiari jarraikiz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukiari jarraikiz." Horren jatorria da Unión del Pueblo Navarro, Nafarroa Bai eta Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeek eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteek aurkeztutako mozio bat, 2008ko urriaren 3ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait foru legeren aldaketa susta dezan, administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruzko txosten bereziaren edukiari jarraikiz

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren aldaketak susta ditzan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean, lege horiek egokitze aldera Nafarroako arartekoak erakundeak administrazio-isiltasuna inpugnatzeko preklusio-epeen araubide juridikoari buruz eginiko txosten berezian aztertutako Konstituzio Auzitegiaren doktrinara.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoaren ondarearen gaineko zerga mantentzeko, superabitak gastu eta inbertsio sozialari aplikatu diezazkion, Iberdrolan duen partaidetza sal dezan eta lehentasunik ez duten azpiegiturretan inbertsiorik egin ez dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoaren ondarearen gaineko zerga mantentzeko, superabitak gastu eta inbertsio sozialari aplikatu diezazkion, Iberdrolan duen partaidetza sal dezan eta lehentasunik ez duten azpiegiturretan inbertsiorik egin ez dezan."

Legebiltzarrek 2009ko otsailaren 12an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2008ko irailaren 11ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen batzarrean dagozkion bi ordezkariak izenda ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Erruki Etxearen zahar-etxea kudeatzen duen batzarrean dagozkion bi ordezkariak izenda ditzan”

Legebiltzarrak 2009ko otsailaren 13an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2009ko otsailaren 13an egindako bileran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren izapideak has ditzan Nafarroako hezkuntza lege bat prestatzeko eta onesteko”

Mozio hori 2009ko irailaren 26ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer dela-eta atzeratu den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen nomina.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer dela-eta atzeratu den Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen nomina.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Osasun kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak jakin du Nafarroako Osasun Zerbitzuan lan egiten duten zenbait pertsonak arazoak izan dituztela beren nominak kobratzeko.

Informazio horiek ikusirik, hauxe jakin nahi dut:

Zergatik atzeratu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zenbait langileren nomina?

Iruñean, 2009ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, prezio mugatuko etxebizitza libre bat erosten dutenentzat PFEZean kenkari fiskala ezartzeari buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, prezio mugatuko etxebizitza libre bat erosten dutenentzat PFEZean kenkari fiskala ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion

Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernuak eta PSNk adostu dute PFEZean bost puntuko laguntza fiskal berezia ematea prezio mugatuko etxebizitza libre bat erosten dutenei. Baina erostun horiei ez zaie dirusarrera pertsonalei buruzko mugarik jartzen kenkari fiskal gehigarri hori jasotzeko.

Zer irizpide sozial eta etxebizitza politikari buruzkok justifikatzen du Nafarroako Gobernuak PFEZean ezartzea kenkari fiskal handiagoa prezio mugatuko etxebizitza libre bat erosten dutenentzat etxebizitza babestuen erostunentzat baino?

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Baztango eta Zangozako osasun eremuko profesionalen eta herritarren eskariei eta eremu horretako gaueko guardiak murrizteari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko otsailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Baztango eta Zangozako osasun eremuko profesionalen eta herritarren eskariei eta eremu horretako gaueko guardiak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko gaurkotasun handiko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilari Kutz andreak heldu den otsailaren 26 eta 27ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik zure departamentuak ez die jaramonik egiten Baztango eta Zangozako osasun eremuko profesionalen eta herritarren eskariei eta eremu horretako gaueko guardiak murriztu ditu?

Iruñean, 2009ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

